

## JERARDO ELORTZA EGAÑA

\_\_\_\_\_ Herritar talde batek beharrezkoa ikusi du herriko seme baten ibilbidea dela eta omenaldi bat antolatzea herriaren esker ona azalduz, zeren persona horrek argudio bezala urteetan egindako lana utzi digu lan nekaezina, persona hau **Jerardo Elortza** dugu.

Ohitura handia dugu horrelako ospakizunak, pertsonaia hilda gero egiteko, zalantzarik ez dago bizirik dela ospatzeak balore positioa baliotsua ezartzen baitio. Eta omenduak, kasu honetan, herritarren berotasuna eta hurbiltasuna jaso ditzake in situ.

Hau guztia kontuan hartuta dei ireki zabal bat egin zen bere garaian antolatzaile edota partaide desberdinen esku hartzea bultzatu guran. Bertaratu ziren lagun desberdinen artean banatu ziren ekintza ezberdinak eta hau honela izanik talde bakoitzak bere ibilbideari ekin zion.

Bideak gure kasuan, helburu bezala duen bete beharra izan du Jerardoren irudia herritarren aurrean ezagutaraztea. Bere bizitzaren atal batzuk agertuko ditugu, haurtzaroa eskolako lehenengo ikasketekin, maristak, seminarioa Donostian. Filologia alemana ikasi zuenez, denbora baten Alemanian topatuko dugu. Ikasketak lehenengo etapan amaituta lan munduan murgiltzeko garaia zetorkigun: ARANZADI ikastolan, UNEDko Euskara departamenduan, Eusko Jaurlaritzaren sailburuordetzako *Bi legi* zuzendari...

Ez da samurra bi lerrotan biltzea egindako guztia, zeren hirurogeita hamar gaingiduta baditu ere oraindik aktibo daukagu. Hizlari aparta. Makina bat hitzaldi emana dugu, hitz asperturako prest orduak sartzeko

Talde lanean edo bakarka argitaratu ditu hainbat liburu gai desberdinak euskara da ardatza bere ekoizpen gehienez. Historia, dialektologia...

Hainbat aldizkarirekin parte hartu du, denak aipatzea luze zabal joko luke, bat edo beste aipatzearen: Argia, RIEV, RSAPV...

Poliki-poliki azkenera hurbiltzen ari gara, atal honetan Euskal Herriko egunkari eta bailarako hedabideak ditugu bitartean

Herrian bertan orain dela hainbat urte hasitako ibilbidea daukagu Antzinako argazkixa Kontzejupetik aldizkarixan, berau hilerokoa da. Erakusketan ikusteko aukerarik izan dezake edonork. Aspaldiko argazkixa

bertan agertzen diren pertsonak zertan diharduten inguruan, bere arrakasta duenik ezin uka.

Beno, azkenera heldu gara. Bere biografia laburpen bat ikusi eta aipatu dugu erakusketan argazkiak erabiliko ditugu hortarako. Eta beste materiala liburuak, batez ere, bertako bitrintan ikus ahal izango ditugu.

Ea lortzen dugun herriko pertsona bat, herrixak ezagutzea.

**ARTIXA KULTURA ELKARTEARI TOKATU ZAIO ERAKUSKETA BIZIRIK MANTENTZEA-- SORTU, AZALDU, GAUZATU, EZAGUTARAZI—Hau izan da erronka. Ikusleek duten orain hitza.**

**ARTIXA KULTURA ELKARTEA.**